

Herri kirolak, aurtengo Kirol Astearen protagonista nagusiak

Leon Albeniz *Iruntxiberri* herri kirolari ezaguna izan da aurtengo Kirol Astearen sari nagusia jaso duena.

Kirol asteen zehar kirol jarduera ezberdinei tartea eskaini zaie, herri kirolei eta herri kirolarietoki berezia eginez. 2016an, Euskal Herriko segariaren txapela burura eraman berri duen **Maria Luisa Gabirondo** herrikidea izan zen aipamen berezia jaso zuen kirolarietako. Epaimahaiaren arabera, "meritu bikoitza du, zeren eta segara bueltatu da zazpi urteren ondoren, eta indarrean dauden gazteei irabazi die". Kirol jarduera gehiago izan zituzten gogoan, honakoak:



Maria Luisa Gabirondo eta Leon Albeniz *Iruntxiberri* aurtengo omendua.

- **Agustin de Leiza Xake Elkarte.** Aurreko denboraldian Gipuzkoako lehenengo mailako txapelketa irabazi zuen.
- **Ganbara Saski Taldea.** Gipuzkoako lehenengo mailara igotzeko play off-a jokatu zuten.

Herri kirolean Leon Albeniz Iruntxiberriren ibilbideoparolari gorazarre egin diote aurtun

- **Oskarbi gimnasia erritmikoa.** Alebinen taldea Gipuzkoako txapelduna izan zen aurreko denboraldian eta alebinak, infantilak eta kadeteak mailaz igo ziren.

ALLURRALDE ETA ARRATEREN URTEURRENAK

Arrate pilotalekuak 40 urte betetzen ditu aurtun, eta 25 Allurralde kiroldegia. Bi instalazio horietako erabiltzaileen biziak jaso zituzten, bideo muntaia bidez.

[KIROLAK, 10. ORRIALDEA]



Arrate pilotalekuan herri kirolean trebatzeko aukera eskaini zuten.



Haur eta gazteboentzat ekitaldirik ez da falta izan Kirol asteen: Pilota, herri kirolak...

Aldundiaren eta eskualdeetako garapen agentzien arteko hitzarmena

Aurreko ostiralean lau urterako indarraldia izango duen lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten.

Elkarlana sustatzea eta estrategia bateratuetan indarrak batzea, xede nagusi hori ardatz hartuta joan zen ostiralean Foru Aldundian hitzarmena sinatu

zuten Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako garapen agentzia guztiek. Tartean, Beterri-Buruntzako. Sortze prozesuan da agentzia eskualdean, eta gainerakoen izaera berbera lortu bitartean, Jon Zulueta Andoaingo enplegu zinegotziak sinatu zuen eskualdeko udal ordezkari guztien izenean.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]



Ospakizun borobila



Egape ikastolak 50. urteurreneko afaria egin zuen aurreko asteburuan, Oianume jatetxean. Bilkura ospakizun bilakatu zen, 310 lagunen parte hartzearekin.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

Andoain Esan ekimena



1.500 sinadura lortzeko helburuari heldu nahi diote datozen egunetan, udazkenean Andoainen erabakitzea eskubideari buruzko herri galdeketa egin ahal izateko.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

Bisitaldi berezia Andoainera



Caceres probintziako diputatua nagusia Andoainen izan zen, Hogar Extremeño gonbidatuta.

[ANDOAIN, 6-7. ORRIALDEAK]

Auto klasikoen bilkura datorren ekainaren 18an



Xoxoka Motor Kirol Klub taldeak ibilgailu klasikoek rally berria antolatu du. Hitzordua goizeko 09:30ean ipini dute, eta eguerdiko 12:00etan 75 kilometroko ibilbideari ekingo diote.

Ibilbidean zehar erregular-tasun proba bikoitza egingo dute. Ibilbidea amaituta, bazkaria egingo dute Oianumen eta ondoren sari bana-keta ekitaldiari ekingo diote.

Autodefentsa ikastaroa ekainaren 17an, Kiroldegian

14 urtetik gorakoei zuzendutako autodefentsa ikastaroa eskainiko dute Kiroldegian, datorren ekainaren 17an. Egun osokoa izango

da, eta izena eman daiteke ostirala bitarte Bertan bulegoetan edota berdintasuna@urnieta.eus helbide elektronikoa.

Igerilekua, zabalik

Larunbatean abiatuko da udako denboraldia, irailaren 10era bitarte iraungo duena.

Astelehenetik ostiralera kiroldegia 22:00ak arte zabalik izango da, eta asteburuetan 21:00ak arte.

Egape dantza taldearen ikuskizuna, ekainaren 17an

“Plazara, plazerez” ikuskizuna hilaren 17an

Egape dantza taldearen jarduna eta Urnieta dantzan jaialdia 2007an abiatu ziren. Lehen hamarkada osatu dutela ospatzeko, Edu Muruamendiarrak eta Egape dantza taldeko arduradunak ikuskizun berezia prestatzen ari dira ekainaren 17rako. Aire zabalean egingo dute, eta ikuskizunari izen iradokitzailea ipini diote: “Plazara, plazerez”. Hamar urte hauetako ibilbidean landutako koreografiaren erakustaldia izango da eta, diotenez, emanaldian zehar sorpresa ugari izango dira. Dagoeneko gonbidatu batzuren izenak aurreratzeko moduan daude: **Anabas** musika taldea edota **Ugarte** txalapartariak.

ASTEBURUA DANTZAN

Egaperen urteurren festaren bezperan, **Aukeran** dantza konpainiak dantza ikuskizun ezberdinak eskainiko ditu kale eta plaza ezberdinetan. Dantza saioei amaiera emateko, “Fusioak” ikuskizuna eskainiko dute San Juan plazan hogei urte betetzen dutela ospatzeko.



Ekainaren 17rako jaialdiaren kartela prest dute jada.



Egaperen iragana, oraina eta geroa lagunarteko afarian bilduta

Urteurrena borobiltzeko lagunarteko ospakizuna



Ikuspegi ikusgarria, Egaperen afarikoa. 310 lagun elkartu ziren joan zen ostiralean, 50. urteurreneko afarian.

Egape ikastolak antolatuta, eta bere 50. urteurreneko ospakizunen egitarauaren baitan, Oianume jatetxean afaria egin zuten joan zen ostiralean. Ikastolaren deialdiari erantzunez, adin guztietako 310 urnietar elkartu ziren bertan, giro atseginan. Ikasturtean zehar 50. urteurrena dela eta antolatutako ekintza jendetsuena izan zen. Bertan elkartu ziren ikasle-ohiak, gurasoak, eta garai bate-

ko eta egungo langileak. Denek ere, lagunarteko giroan, hainbat bizipen eta oroitzapen partekatze aukera izan zuten.

Afaria ez zen mugatu ordea jan-edanera. Oianumeko gaua jantzi zuten hainbat ekitaldi gauzatu baitziren, besteak beste, ikastolaren ibilbidea jasotzen duten argazkiekin osatutako bideoa proiektatu zen pantaila handian; **Maripi Sarasolak**, ikastolaren lehen irakas-

le izandakoak, bertso batzuk eskaini zituen; edota, Egaperen lehenengo zuzendaria izandako **Juxto Egañiak** gidatuta, hainbat abesti kantatu zituzten bertaratutakoek, **Fermin Zinkunegiren** akordeoia lagun zutela.

Afalostean, batzuk etxerako bidea hartu zuten bitartean, askok jatetxeko diskotekan hartu zuten aterbe, goizaldeko ordu txikiak arte jaiatu zuten.



© Argazkiak: Egape ikastola.



Aldundiaren eta garapen agentzien arteko hitzarmena



Hitzarmen ekitaldian parte hartu zuten eskualde guztietako ordezkariak, Donostiako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariekin batera.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta lurraldeko Tokiko Garapen Agentzi guztiek ekonomia sustapenerako hitzarmena sinatu berri dute, lau urteko iraupena izango duena. Beterri-Buruntza eskualdearen ikuspegitik, egitasmoa garrantzia handikoa da, eskualdeko Udalak ere sinatzaileen artean baitaude. Elkarlanerako dokumentua Markel Olano diputatuak eta Garapen Agentzietako lehendakariak sinatu zuten Foru Aldundiko kontseilu gelan egindako goi-

mailako bileran. Buruntzaldeko udalerrien izenean Andoingo Udaleko Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Gazteria saileko zinegotzi Jon Zuluetak sinatu zuen hitzarmena.

Eskualdeei garrantzia eman zien Olanok: "Gipuzkoa lurralde lehiakor eta aurreratuagoa izan dadin, ezinbestekoa da elkarlana sustatzea eta estrategia bateratuetan indarrak batzea. Eskualde guztiak indartsuak izanik soilik lortuko dugu Gipuzkoako aurrera egitea".

Gipuzkoako aurrekontuei ekarpenak egiteko aukera

Gipuzkoako 2018ko aurrekontuetan herritarren ekarpenak jasotzeko herriz herri dabilta, Imanol Lasa Aldundiko bozeramailea buru dela. Urnietatik abiatu zen egitasmoa eta bisitaldia egin zuten lehen herrietako Andoain izan zen. Bi herrietan informazio karpa jartzearekin batera, herri eragile ezberdinekin bilerak egin zituzten. Imanol Lasak berriki adierazi duenez, "handik eta hemendik ekarpenak jasotzeko nahia dugu. Proposamenak jasotzeko epea ekainaren 30ean bukatuko da, baina uda partean oraindik baten batek zeresanen bat badu, aintzat hartuko dugu. Izan

ere, irailean hasiko da Foru Aldundia aurrekontuak garatzen, batik bat abenduan onartu beharra dugulako Bartzar Nagusietan".

Orain arte herritarren aldetik zeintzu diren proposamen ohikoena galdetzera koan, "batik bat, bidegorrien eta errepedien ingurukoak dira, baita Mugi txartelaren gainekoak ere, ikasleek eta langileek eskatzen digute deskontu gehiago eta errentarekin lotu beharko lirakeela horiek; izan ere, orain ez dugu bereizten ikaslea den, langilea den edo erretiratua".

943 113 960
gipuzkoa.eus/partaidetza

Eguzkitan Blai! udalekuak



Oraindik ere Eguzkitan blai! udaleku irekietan izena emateko aukera dago, zehazki, datorren ekainaren 9ra arte.

Interesa duenak Lekaion edo Bertan bulegoetan eman dezake izena. Udalekuak ekainaren 26an hasi eta uztailaren 28ra arte luzatuko dira, goizeko 10:00etatik 13:00etarako ordutegiarekin. 2005-2013 bitartean jaiotako haurrek parte hartu ahal izango dute udaleku irekietan.

Udalaren ekonomia azaltzeko batzar irekia

Udal gobernu taldeak batzar ireki batean Udaleko egoera ekonomikoa aurkeztuko du: "Ekonomia krisiak eta urteetan hartutako erabaki okerrak gogor astindu zuten Udal diru funtsa, baina azken urteetan izandako eki-

menen ondorioz egoera ekonomikoa onbideratzea lortu da".

Udalak herrikide guztiei batzarrean parte hartzera deingin die.

19:00 Basteroko ekitaldi aretoa.
Ekainak 12, astelehena.

"Eskola jasangarria" diploma La Salle Berrozperi



Aitor Azurmendi, Haizea Esnaola, Iñigo Urkullu eta Marta Agudo.

Ingurumenaren Mundu Egunean, La Salle Berrozpek "Eskola jasangarria" ziurtagiria eskuratu zuen Iñigo Urkullu lehendakariaren esku-

tik. Ingurumenarekiko bere konpromisoa eta alor horretan egindako ahalegina aitortzen ditu, besteak beste, asteartean jasotako izendapenak.

Festa ikastolan

Aita Larramendi ikastolak igande honetan egingo du ikasturte amaierako ospaki-

zuna. Goizean hasita jolasak, erakustaldiak edota bazkaria iragarri dituzte.

Ikasturte amaierako jaia Ondarreta ikastetxean



Dantza saioa Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian.

Ikasturte amaierara iristen ari da, eta joan zen larunbatean Ondarreta ikastetxeko ikasleek, gurasoek eta irakasleek ikasturte amaierako egu-

na ospatu zuten. Jaiaren antolatzaileek adierazi dutenez, eguna bikain igaro zen. Parte hartzaile guztiei eskerrona adierazi nahi diete.

Leitzaran bisitarien etxea

Leitzaran Bisitarien Etxeak bi ikastaro eskainiko ditu datozen egunetan:

GPS aplikazioen ikastaroa
Ekainak 10, larunbata
10.00-14.00.

Sendabelarren ukendu tailerra
Ekainak 17, larunbata
10.30-14.00.

Izen-ematea:
943 300 929
info@leitzaran-andoain.eus

Aldundiaren sagardo lehiaketa, 29 ekoizleren parte hartzearekin

Gaztañaga, finalista



Gaztañagakoek lehiaketa irabaztea zer den jakin badakite. Aurten ere, Andoaingoak finalisten artean sailkatu dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sagardo Lehiaketaren XVI. edizioaren finalean, Altueta izan zen irabazlea, Adunako Aburuza txapeldun-orde eta Asteasuko Sarasola hirugarren. Lehiaketara izena eman-

dako 29 sagardogileen artean sei izan dira finalistak: Aburuza, Atzueta, Etxeberria, Gartziategi, Gaztañaga eta Sarasola. Aldundiko Fraisoroko dastagunean ikasi eta diplomadun diren dastatzaileek osatutako

epaimahaia aukeratu du irabazlea. Hau izan da epaimahaiaren emaitzaren arabera sailkapena:

1. Altueta: 82 puntu.
2. Aburuza: 80 puntu.
3. Sarasola: 70 puntu.

HONDAKINEN MAHAIA DEITZEA ESKATU DUGU

IPAR HAIZEA POSTONTZIA

Pasa berri den maiatzaren 15ean idatzi bat erregistratu genuen udaletxean, Hondakin Mahaiak presaz deitza eskatu, eta bertan Andoaingo hondakin bilketa sistemari egin beharrekobekuntzak eta aldaketak planteatzen hastera deituz, birziklapen tasa oso baxuak baititugu egun (soilik %45,6 abenduan; azken datuak), eta hauek hobetu beharra daukagu. Gipuzkoako udalerririk gehienekin alderatuta atzean geratzen ari baikara.

Uste dugu borondatezko edukiontzi marroien (bosgarren edukiontzi edo organikoaren edukiontzi ere deitua) eraginkortasunak goia jo duela eta arazo hondakin kontrolik eta mugarik gabe nahastea ahalbidetzen duen edukiontzi berdea dela. Gipuzkoako udalerririk askotan, urrutira joan gabe, edukiontzi berdea errefusarentzako (birziklatu ezin diren hondakinak) edukiontzi gris txipdun batengatik ordezkatzera erabaki dute, bosgarren edukiontzi bidezko organikoaren bilketa etxe guz-

tietara zabalduz (bere erabilera borondatezkoa ez izatea eta erabilera orokortuak izatea, alegia), eta emaitza aipagarriak lortuaz horrela.

Horregatik, eta 2014an Hondakin Mahaiak adostutako kontuan hartuz (%60ko birziklapen tasa, konpostajea sustatu, edukiontzi marroia ezarri, sortzaile berezientzako bilketa berezia jartzea, ontzien erabilera murrizteko kanpaina burutu, errefusa gutxitu...) Gipuzkoako udalerririk askotan egindako esperientzia arrakastatsua kontuan izatea proposatzen dugu, esaterako Zumarraga (%74ko birziklapena, gobernuan PSE-EE), Aretxabaleta (%80, EAJ-PNV), Elgeta (%81, EHBildu), Arrasate (%79, EAJ-PNV), Olaberria (%84, OEO), Zegama (%76, Zegama Lantzen) edota Beasain (%77, EAJ-PNV) aurrea eramandakoak; non alderdi politiko guztien oniritziarekin adostu zuten zaborraren edukiontzi berdea kentzea eta horren ordez edukiontzi gris txipdun oinarritutako sistema ezartzea, non herritar guztien betebeharrak hon-

dakinak modu egokian sailkatzea den. Uste dugu, gainera, sistema planteatzerakoan kontuan hartu behar direla, besteren artean, Andoaingo Hondakin Mahaiak berak finkatutako helburuak betetzea (%60); Tolosaldeko Mankomunitatearenak (%60tik beherako mailak ez ditu ontzat hartzen), eta Europak adostutako helburuak (derrigorrezkoak) 2020rako %50 eta 2030erako %70 birziklatzea, honenbestez uste dugu planteatu beharko litzatekeela egungo eta etorkizuneko helburuak betetzeko.

Horregatik, uste dugu Andoaingo hondakin gairako irtenbide ezberdinak eztabaidatu beharko liratekeela, betiere aurrez aipatutako helburuak gainditzea ahalbidetzen badute.

Andoain jasangarriago eta garbiago baterantz bidean uste dugu denok lagundu behar dugula. Bide horretan aurkituko dute Ipar Haizea, parte hartzeko eta laguntzeko prest Andoain hondakin bilketa jasangarriago, garbiago eta arduratsua gora lortzeko norabidean.



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

ERABAKITZE ESKUBIDEAREN ALDEKO EKIMENA ANDOAINEN

Andoain Esan ekimena 1.500 sinaduren bila

Andoainen lortzear dira herri galdeketa egin ahal izateko beharrezkoak diren mila eta bostehun sinadurak. Joan zen larunbatean sinadura gehiago lortu zituzten arren, ez dira oraindik ipinitako hel-

burura iritsi. Orain arte sinadura eman ez dutenek Kaleberrian ipinitako bulegoan eman dezakete, egun hauetan. Andoainen erabakitzeko eskubideari buruzko herri kontsulta azaroan egin nahi dute.



Euskal gazta, sagardoa edota ardoa dastatzeko aukera zegoen Zumea plazako postuan.



Kataluniako pa amb tomaca ezaguna jateko aukera eskaini zuten Zumea plazan.

Erabakitzeko eskubidearen inguruko herri galdeketa Euskal Herri osoan egiten ari dira, **Gure Esku Dago** ekimenaren babesean. Kontsulta egin ahal izateko, lehenik eta behin, herritarren sinaduren bermea lortzea ezinbestekoa da. Andoainen ere erabaki nahi dute, eta horretarako **Andoain Esan** ekimenak 1.500 sinadura lortu nahi ditu. Apirilean indartsu hasi eta helburu gisa jarritako sinadura kopurua lortzear badira ere, denbora aurrera doa eta egun hauetan kopuru horri lortu behar dute. Bai ala bai. Bestela, kolokan egon daiteke azaroan egin nahi duten herri galdeketa.

Udaberrian hasitako sentsibilizazio kanpainarekin jarraituz, joan zen larunbatean Andoain Esan taldekoek festatxo ospatu zuten Zumea plazan. Euskal Herriko gazta eta Kataluniako *pa amb tomaca* pintxoak eskaini zituzten,

Maizorri taldearen txalaparta eta **Malkogariyak** musika taldearen doinuez lagunduta. Postu ezberdinetan kamisetak eros zitezkeen eta, nola ez, baita sinadura eman ere. Mila eta berrehundik gora ziren larunbata arte lorturikoak, 1.325 sinadura ekitaldiaren amaieran. Ekimenak, beraz, bere fruituak eman zituen.

Datozen egun eta asteetan sinatzen jarraitzeko aukera zabalik izango da, Kaleberrian duten dendan edota kalean egun jakinetan ipiniko dituzten mahaitxoetan.

Sinatzea herri kontsulta egiteko aukera ahalbidetzea da. Eta hori lortuz geroz, kontsultan nahi duenak aldeko edo aurkako botoa eman dezake. Ezinbestekoa dena, gaur gaurkoz, kontsulta egin ahal izatea da. Eta hori lortzeko andoaindarren sinadurak behar dira.



NORK SINA DEZAKE?

Sinatzeko baldintzak honakoak dira: 2017ko azaroaren bosta baino lehenago 16 urte beteta izatea eta Andoainen erroldatuta egotea.

NON SINA DAITEKE?

Andoain Esan ekimenak bulegoa Kaleberrian du, Delgado liburutegian ondoan.

Andoain Esan bulegoa:

Kaleberria, 1. 11:00-13:00 / 17:00-20:00.

Ane Amutxastegi

Andoain Esan - Bozeramailea

Andoaindar gazteek sinatzearen garrantziaz ohartarazi zuten Zumea plazan bertan egindako adierazpenetan.

Nola doa sinadura kanpaina?

200 sinadura inguru falta zaizkigu 1.500era iristeko, udazkeneko herri galdeketa egin ahal izateko kopuru hori ziurtatzea beharrezkoa baita. Sanjuanak iritsi baino lehen kopuru horretara iritsi behar dugu, Madrilan notaritza baten aurrean aurkeztu ahal izateko.

Zergatik sinatu?

Sinatzeak esan nahi du erabakitzeko eskubidea izan nahi dugula. Alde batera edo bestera bozkatzuz, etorkizuna modu batera edo bestera eraikiz, sinatzeak kontsultatuak izan nahi dugula esan nahi du.



ANEURRI

EGUNEROKOAREN
JARRAIPIEN
ZEHATZA
WEBGUNEAN



CACERES PROBINTZIako DIPUTAZIOAREN BISITALDIA ANDOAINERA, HOGAR EXTREMEÑOEN KULTUR ASTEAN

Goi mailako bisita herrira, Extremadurako astean

Extremaduran jaio eta Andoainera bizitzera etorritako herrikide askorentzat egun berezia izan zen larunbatekoa. Kultur Astearen baitan Caceres probintziako agintari gorenaren bisita jaso zuten

Andoainen, eta hori dela eta, bazkide ugarik parte hartu zuten harrera ekitaldian. Lehenxeago, Udal ordezkari zabalak eta Foru Aldundiak ongietorria eman zieten bisitaldian etorritakoei.

Andoaingo **Hogar Extremeño** elkartearen gonbidapenari erantzunez, **Charo Cordero** Cacereseko presidentea **Alvaro Sanchez** Kulturako diputatuarekin batera Andoainera hurbildu zen larunbat eguerdian. Udaletxearen atarian, Udaleko alderdi guztietako ordezkariak bertan zirela eta **Ana Carrere** buru zutela, harrera ofiziala egin zieten; Foru Aldundiko Kulturako diputatu **Denis Itxaso** ere ekitaldi instituzionalean parte hartu zuen.

Asier Garmendia Urkiko dantzariak Urigaingo txistularien laguntzaz aureskua dantzatu zien, protokoloari jarraiki. Ondoren, bertaratutako guztiak udal batzar aretora igo ziren. Bertan, opariak trukatu eta nork bere mintzaldia egin zuen. Alkateak Andoaingo udaletxearen margoa oparitu zion bisitariari. Honek, bere aldetik, Caceres herrigune historikoaren maketa bat oparitu zion.

Udaletxeko ekitaldia amaituta, udaletxean bildutako guztiak Hogar Extremeñoen egoitzara abiatu ziren kalejiran, txistularien doinuei jarraituz.

Hara iristerako, Hogar Extremeño elkarteak bazkidez josita zegoen. Bertan Extremadurako ereserkia abestu eta Donostiatik etorritako dantza taldeak Extremaduran ezagun diren bi dantza interpretatu zituzten.



Alvaro Sanchez Caceres probintziako Kultura diputatua, **Charo Cordero** Cacereseko presidentea, **Ana Carrere** Andoaingo alkatea, **Ignacio Gomez** Hogar Extremeñoeko presidentea eta **Denis Itxaso** Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura diputatua.

Bigarren harrera ekitaldi horretan, **Charo Cordero** hitzordua "emozioen eguna" gisa definitu zuen, eta ez zitzaion arrazoirik falta izan. Elkarteko hainbat kideren antzera, **Ignacio Gomez** Hogar

Extremeñoeko presidentea ere hunkituta agertu zen ekitaldiko hainbat unetan. Adierazi zuenez, Extremaduran jatorria duten milatik gora pertsona bizi dira gaur egun Andoainen. Horientzat eta

gainerako andoaindarrentzat ere, larunbatekoa egun handia zela adierazi zuen, hitzordua kulturen arteko elkarbizitza sinbolizatzen zuelako.

Argazkiak, bideoak: Aiurri.eus



Udal ordezkari zabalak parte hartu zuen larunbat eguerdiko ekitaldian.



Txistulariei jarraiki, agintariak udaletxetik elkartera abiatu ziren.

CACERES PROBINTZIako DIPUTAZIOAREN BISITALDIA ANDOAINERA, HOGAR EXTREMEÑOEN KULTUR ASTEAN



Presidentak mahaiz mahai agurtu zituen elkartera hurbildutako herritarrak.



Jendez gainezka zegoen elkarte, larunbat eguerdiko harrera ekitaldian.



Extremadurako ereserkia abestearekin batera, bi dantza ezberdin eskaini zituzten.

Folklore jaialdia

Ostiral honetan amaiera emango diote folklore jaialdiari, Andoaingo Basteron. Hainbat talderen parte hartzea iragarri dute. Kultur astea borobiltzeko kultur jarduera izango da.

Aurreko egunetan, dagoeneko kla-

siko bilakatu diren hainbat ekitaldi egin zituzten. Besteak beste, Extremadurari buruzko idazketa lehiaketa, adinekoren merienda eta oroigarri banaketa eta patata tortilla lehiaketa.



Casimira Salas andoaindarra, lore sorta eskuetan eta Toñi alaba ondoan duela.

Egun berezia Casimira Salasentzat

Hogar Extremeño elkarte agintariak ez ziren oparia jaso zuten pertsona bakarrik izan. **Charo Cordero** Cacereseko diputazioko presidentek **Casimira Salas** andoaindarrari lore-sorta eskaini zion, elkarte barruko harrera ekitaldian. Cordero diputazioko arduradun politikoa izateaz gain, **Romangordo** herriko alkatere bada, eta hain zuzen ere, Casimira Salas bertan jaiotakoa da. Asko eta asko dira 263 biztanle dituen herri txiki horretatik 60ko eta 70eko hamarkadetan Andoainera heldu zirenak, eta horietatik zaharrena da Casimira. 1935ean jaio eta 1971n hartu zuen Andoaingo bidea, **German Avila** senarrarekin eta 13 urteko **Toñi** alaba gaztearekin batera; han bizimodua ateratzea ezinez-

koa zitzaielako hartu zuten erabaki gogor hori. Geroztik, **Ernesto** eta **Javier** beste bi semeak jaio ziren. Egun, alargunduta dago Casimira, eta sei biloba eta bost birbiloba ditu.

German Avila senarrak eta berak bezala Extremaduratik Andoainera emigratu zuten beste hainbat lagunek Hogar Extremeño elkarte sortu zuten 1977ko irailean. Elkarte, jatorri bereko pertsonak biltzeko eta euren kultura eta ohiturak ez galtzeko sortu zuten. Casimira Salas gertuko kidea izan da azken berrogei urteetan.

Oso pozik eta eskertuta agertu zen larunbateko ekitaldian, Cacereseko presidente eta herrikideak berarekin izan zuten keinuagatik.

Literatur lehiaketa

Francisco Fernandezen idazlana izan zen "Zer dakizu Extremaduraz?" literatur lehiaketaren irabazlea. Joan zen astea-

tean Hogar Extremeño elkarteantolatatu zuten eta bazkide ugarik hartu zuten parte lehiaketan.

Kontxako barandilla



Hogar Extremeño elkarteant, Cacereseko diputazioko ordezkariak Kontxako barandillaren erreplika oparitu zieten, "La batalla de Andoain" liburuaren ale banarekin batera.

HAURREN EUSKAL JAIALDIAREN EDIZIO BERRIA ANDOAINEN

Haurren euskal jaialdia

Eguraldi kaskarraren eraginez, igandeko ospakizun nagusia Ondarretako ikastetxeko jolastoki estalian egin behar izan zuten. Euskal Herriko bazter ugariatatik hurbildu ziren Andoainera: Lasarte-Oria,

Berriz, Lizarra eta Uztaritzeko dantza taldeak, Zarautz eta Loatzo trikitilari taldeak, Villabonako Eresargi Abesbatza, Loatzo Musika Eskolako txistulariak eta, nola ez, Andoaingo talde ezberdinak.



Urki dantza taldeko kideekin batera, Andoaingo trikitilariak eta Soinuak musika eskolako kideak jaialdian partaide izan ziren. Eta, nola ez, baita Andoaingo txistulariak ere.



Lasarte-Oria, Berriz, Lizarra eta Uztaritzeko dantza taldeak hurbildu ziren Andoainera. Irudian, Uztaritzeko kideak.



Urkiko dantzariak ekitaldiaren hasieran agurra dantzatu zuten, denek batera.



Txistulariak Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian.



"Aldapan gora" kantu ezaguna eskaini zuten Soinuak musika eskolako kideak.



Andoaingo trikitilariak.



KIROL ALBISTEAK

Gazteleku-Doneztebe, igandean Arraten

Duela bi asteko partidatan Andoingo Gazteleku taldeak aurrera egin zuen eskuzko Berria txapelketan, Ultzamako taldeari 2-1 irabazi eta gero. Asteburu honetan Doneztebeko Erreka taldea izango dute aurkari.

BERRIA TXAPELKETA

Ekainak 11, igandea
10:30 Arrate pilotalekua
Artola-Mujika
Osa-Elizegi
Eskudero-Aizpuru



Andoni Alvarez prestatzailea Andoingo Gazteleku taldeko pilotariekin batera.

Igeriketa saio irekiak itsasoan, datozen asteetan



Buruntzaldea IKT taldeko kideak, aurreko asteburuan Allurraldeko igerilekuan.

Buruntzaldea IKT igeriketa taldeak, Master taldeko igerilariekin batera, itsaso zabalean entrenamenduetan parte hartzeko aukera eskainiko du datozen asteetan. Halaxe iragarri dute taldeko ardura-dunek: "Ekainaren 12tik uztailearen 21era bitartean itsasoan entrenamenduak egiteko goaz. Hasera batean, bi ordutegi ipiniko ditugu itsasorako aukeran: Astelehen, asteazken eta ostiraletan arratsaldeko 16:00-17:15 artean edota iluntzeko 19:00-20:15 artean. Prestaketa saio hauetan parte hartzeko, igeri egiten jakitea beharrezkoa da. Kontutan izan entrenamendu egitura batean gaudela eta ez ikastaro batean, beraz, helburua ez da igeri egiten irakastea, nahiz eta logikoki alor teknikoa ere jorratuko den. Federatua ez bazaude, itsasoan gerta daitekeen edozein ezbeharren aurrean babestu gabe zaude.

Hori dela eta, klubak jardueraren iraupen osoan zehar babestuko zaituen aseguru bat egingo dizu".

Informazioa:
buruntzaldeaikt@gmail.com

UDABERRI LIGA, HIRUGARREN JARDUNALDIA ALLURRALDEN

Joan zen asteburuan Buruntzaldea IKT taldekoak Andoainen aritu ziren, hainbat marka pertsonal hobetuz: Lander Sorozabal (100 tximeleta: 1:10:80, 100 bular proba: 1:24:51), Nora Qian (200 libra: 2:28:11), Beñat Alkorta (50 libra: 28:27), Xabi Alonso (50 libra: 29:31, 100 tximeleta: 1:11:83), Irune Martin (50 libra: 41:89, 200 libra: 3:20:43) eta Jon del Rio (100 bular proba: 1:32:88). Aste gutxiren buruan Gipuzkoa zein Euskal Herriko Udako Txapelketatan hasiko dira igerilariak, denboraldiko azken txanpan hain zuzen.

Andoingo areto futbol txapelketako azken txanpa

LIGAXKA

Bi taldeetako lehenak final aurrekoetara sailkatu dira:

A taldea

- | | |
|--------------|----------|
| 1. Txalaka | 29 puntu |
| 2. Keler | 26 puntu |
| 3. Dad Kutxa | 20 puntu |
| 4. Akerbeltz | 16 puntu |

B taldea

- | | |
|----------------|----------|
| 1. Academia GF | 29 puntu |
| 2. Irunberri | 28 puntu |
| 3. Lanbroa | 23 puntu |
| 4. Olajauna | 20 puntu |

FINAL AURREKOAK

ASTEBURUAN ERABAKIKO DIRA

Asteburu honetan Allurralden jokatuko dira final aurrekoetako partidak guztiak.

Academia G.F 7-0 Olajauna

Itzulera: Igandea, 11. 09:15.

Txalaka 7-2 Akerbeltz

Itzulera: Igandea, 11. 10:15.

Irunberri 2-1 Lanbroa

Itzulera: Igandea, 11. 11:15.

Keler 3-1 Dad Kutxa

Itzulera: Igandea, 11. 12:15.

EGAPEFILM
I.ESKOLARTEKO LABURMETRAI LEHIAKETA

GAIA:
BIZIPOZA

SARI BANAKETA:
2017KO EKAINAREN
12an SAROBEN

19:30etan

Jon Jauregi

PARTAIDEAK:
DBH eta BATXILERC

Umistako udala | Imanolasa | DRUCK | Anurore Vinatea | on bizi | pixel | indidiben | Manuel Abxago 807 569 857



KIROL ALBISTEAK

Kirol merezimenduaren saria Iruntxiberriri

Andoaingo Kirol Astean aurtengo protagonista nagusia Leon Albeniz Iruntxiberriri izan da, berak jaso baitu Kirol Aipamena. Adinean aurerra, herri kirolen munduan aski ezaguna da. Joan zen ostegunean

jaso zuen aipamena Basteroko ekitaldian, eta eskertuta eta hunkituta agertu zen. Senide eta Udal ordezkarietaz gain, herri kirol giroko kirolari ugari hurbildu zen ekitaldira.

Labur mintzatu zen Iruntxiberriri, oroi-garria jasotzera oholtzara igo zenean: "Sentimenduz gainezka nago, eta asko ezin du hitz egin. Ez nuen pentsatzen horrelakorik ikusi behar nuenik. Niretzat ezusteko izugarria izan da herriak nire alde egin duena ikustea. Nire bizi guztirako oroitzapena izango da, ez naiz sekula ahaztuko Andoaingo herriarekin, eta hemen azaldu diren hainbeste lagunekin. Mila esker denei. Gaurko honekin pixka baterako zorretan gertzen naiz". Txalo zaparrada jaso zuen, adierazpen horiek egin ostean.

Ana Carrere alkateak herri kirolen garrantzia aipagai izan zuen: "Herri kirolak herritik eta herriarentzat sortutako kirolak dira; aintzinako ohituratan sustraituta daude eta, urteen poderioz, gure herriaren nortasunaren eredu bilakatu dira. Landa, itsaso eta baserri eremuekin euskaldunok dauzkagun loturen seinale dira. Aparteko lekukoa da Leon Albeniz. Lan itzela egin du herrikirol ezberdinak sustatuz eta horietako askotan parte hartuz".

FILM BATERAKO BIOGRAFIA

Ainhoa Aiertza ekitaldiaren aurkezleak Albenizen biografia deskribatu zuen, haren merituak azpimarratzearekin ba-



Ana Carrere alkatearen eskutik jaso zuen Iruntxiberriri aipamen nagusiaren oroigarria.

tera: "Korrika joaten zen eskolara. Baserriko lanengatik, lanaldi luzeetara umetatik ohituta zegoen eta Aiako jaioterriaren lasterketa bat prestatzen ari zirela, herriko korrikalaria behar zela eta bere bila joan zirenetik, kirolari lotua egon da bere bizitza". Aurkezleak omenduak be-

rak idatzitako "Nire aitortza eta berriketa liburua" irakurtzea gomendatu zien gonbidatuei, Iruntxiberriri ezin egokiago deskribatzen baitu apustuei lotutako herri kirolen errealitatea: "Apustuaren alderdi gazi-gozoak ezagutu eta bizitzeko aukera izan zuen urte askoan. Eginda-

ko apustu gehienak irabazi zituen, eta momentuko kirolari garrantzitsu eta onenekin lehiatu zen, askotan, aurkariak baino metro gehiago korrituz edota biren aurka lehiatzera ausartuz. Banakako lehiaketan ez baitzuen kontrariorik. Besteak beste, **Juan Kruz Arruizko Txikia**, **Miguel Aldatz**, **Andoaingo Patxi Irizar eta Doroteo**, **Jose Aierbe**, **Jose Miguel Irazu**, **Juan Jose Irazusta** edota **Jose Miguel Maiz** kirolariak menderatu zituen behin baino gehiagotan". Alde horretatik, Iruntxiberriri baditu ezarrita zen-bait marka, oraindik inork gaintu ez dituenak.

Bastero kulturgunean egin zuten ekitaldia, ohikoa den moduan, oso landua izan zen. Hainbat bideo pasarte tartekatuz zituzten, tartean **Belen Albeniz** albarena: "Gogoz eta pasioz bizi du eskuartean daukan guztia; ezaugarri ona da hori berez, baina aldi berean, lasaitasun pixka bat behar du...". Hainbat kirol eragilek ere bideo bidez zoriondu zuten, besteak beste honakoek: **Aitor Amutxastegi** (Andoaingo txirrindulari Taldea), **Ion Beloki** (San Estebango Jai Batzordea), **Pako Arnaiz** (Zumeatarra), **Jose Angel Sarasola** (herri kiroleko aurkezlea), **Maria Luisa Gabirondo** (segalaria), **Antonio Iturrioz**...



Leon Albeniz, hiru alaba, suia eta bilobak Basteroko ekitaldi aretoan.



Jose Miguel Maiz, Leon Albeniz Iruntxiberriri eta Jose Egues elkarrekin.



KIROL ALBISTEAK

SD Euskalduna taldearen zuzendaritza talde berria



Zuzendaritza utziko duten kideak, taldekide berriekin batera, joan zen asteburuan Ubitarten deitu zuten batzarrean.

Zuzendaritza berria dauka Euskalduna Futbol taldeak, larunbatean egin zen urteko batzarraren ostean. **Gerardo Abrego** da presidente berria; **Iñaki Gurrutxaga** presidente ordea, **Joxe Mari Setien** idazkaria, **Joxe Mari Gaztañaga** diruzaina, eta azkenik, **Ramon Iriarte**, **Salva Parada**, **Mikel Zubeldia**, **Jose Maria Landa**, **Juan Luis Anton** eta **Xabier Ezkurdia** Batzordekideak.

Hamar urte egin ditu aurreko zuzendaritzak, **Jose Angel**

Huizik zuzentzen zuenak, eta honako kideak izan dituena: **Javier Garcia** (presidente ordea), **Javier Zatarain** (idazkaria), **Jose Maria Estibariz** (diruzaina), eta **Pedro Martinez**, **Gerardo Abrego**, **Xabier Ezkurdia** eta **Juan Luis Anton** batzordekideak. Ikusten denez, Abrego, Ezkurdia eta Anton dira zuzendaritza taldean jarraituko duten bakarrak.

Larunbateko urteko batzarrean kirolari eta ekonomiari dagozkien txostenak aurkeztu

eta onartu ziren, eta aldi berean, 2017-2018ko aurrekontua azaldu zen.

FUTBOL ESKOLA

Bestalde, taldeak jakinarazi duenez, ekainaren 19, 20 eta 21ean eman ahal izango da izena Futbol Eskolan; 2006, 2007, 2008 eta 2009a jaiotako neska eta mutilak edukiko dute aukera horretarako, Ubitarte futbol zelaiko bulegoan, arratsaldeko 17:00etatik 18:30era.

Ezkaurrera mendi irteera



Ezkaurre mendi.

Aniera igotzeko azken metroak arriskutsuak izan daitezkeela ondorioztatuta, **Zanpatuz mendi elkarteak** asteburu honetan Ezkaurrera igotzeko proposamena egin du. Astelehenean hainbat taldekide Aniera hurbildu ziren eta elurragatik arriskutsu izan zitekeenaren ondorioa iritsi ziren.

EKAINAK 10, LARUNBATA IRTEERA

Larunbat honetako mendi irteerara bakoitzak bere jana eraman beharko du, eta arropa egokia, mendi garaia baita. Irteera goizeko 05:00etan izango da Matxoko autobus geltokitik, eta Urnietara itzulera, arratsaldeko 18:00ak aldera.

Mikel Iturria tropelean da berriro, lesioa gaindituta



dio, orain aste gutxi Asturiaseko Itzulian izandako lesioa gaindituz. Euskadi-Murias taldekoa ihes eginda ibili zen lehen etapan. Talde osoak bezalaxe, parte hartze handia izan zuen G.P. Beiras lasterketan.

ANDOAINGO TXIRRINDULARI ESKOLAKO INFANTILAK

Infantil eta alebin mailako lasterketa izan zen Zegaman.

Infantil mutilak:

1. Dani Fursenko (ANDOAINGO)
2. Iker Atxaga (ANDOAINGO)

Infantil neskak:

1. Laiene Pikabea (ANDOAINGO)
2. Amaia Astarloa (ORIA)

Urnietako txirrindulariak Portugalen profesional mailako denboraldiari berrekin

Emozioa Berria txapelketan

Aurreko asteburuan Usurbil eta Oberena taldeen arteko norgehiagoka jokatu zen Urnietako pilotalekuan. Jendetza hurbildu zen eta partida azken tantora arte emozioz beterikoa izan zen. Azken tantoran eskualdekoen alde egin zuen partidak. Usurbil, beraz, aurrera doa berria txapelketan 22-21 irabazi eta gero.

ESTATU MAILAKO TRINKETE TXAPELKETA

Ulertzea kosta egiten den partida galdu zuen Julen Loitegi-Oier Gurutzealde bikoteak, Hernani taldearen aurka. Bana amaitu eta gero (9-15 | 15-7), desenpateko partidaren 8-10 galdu zuten. UKEkoek ohikoa duten mailaren azpitik jokatu zuten.

ANDOAIN GIPUZKOAKO PALA HERRIARTEKOAN TXAPELDUN



Andoain taldeak Deba garaitu zuen, Gipuzkoako Herriarteakoaren finalaren bi partidatan irabaziz (35-32 eta 40-30). Zorionak Gazteleku taldeari eta bereziki Iradi-Lete eta Altuna-Rekalde txapeldunei.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:
Etxe etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 36 eurokoa da. Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.eus
Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:
Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:
Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:
Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Tel.: 943 300 732

Banatzaileak:
Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

EKAINAREN 9TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Zinema

Andoain, Bastero
■ **“Marie Curie”**
Lar, 10. 19:30-22:00.
Ig, 4. 19:30.
Astl, 5. 19:30-22:00.

Hitzaldia

Urnietan
■ **“Nerabeak eta teknologia digitalak: erabilera arduratsu baterako bidean”.**
18:30 Lekaio.
Ekainak 8, osteguna.

Dantza

Andoain
■ **Axeri Dantza**, entseguak San Juan jailetako emanaldirako.
Ekainak 12, 14, 19, 21.
20:00 Ondarreta ikastetxea.

Farmaziak

Andoain
■ **Pajares**. Zumea, 20.
Gauetz: **Etxebeste** (Hernani).
Ekainak 10-11.

Urnietan
■ **Tanco** (Urnietan).
Gauetz: **Etxebeste** (Hernani).
Ekainak 10-11.

Antzerkia

Urnietan
■ **“Etxola magikoa”**, Joxe Mari Berasategiren zuzendaritzapean.
17:00 Sarobe.
Ekainak 16, ostirala.
■ **“Pentagrama enea”**, Urnietako Udal antzerki tailerraren eskutik.
19:00 Sarobe.
Ekainak 16, ostirala.

Oharra

Andoain
■ Igeriketako ikastaroen programazioa dela eta, Allurraldeko igerileku txikia itxita egongo da erabiltzaile guztientzat. Larunbatetan goizeko 9:30etik 11:30era.

Kultur Astea

Andoain
■ Extremadurako Etxearen eskutik:
Ekainak 9, ostirala:
20:00 Folklore jaialdia Basteron: La flor de Tomillo (Ermua), Erketz (Lasarte-Oria), Zambra Sevillanas (Lasarte-Oria), Semblante Rociero (Lasarte-Oria) eta Zuena (Andoain).
Ekainak 10, larunbata:
10:00 Miga txapelketa.
12:00 Toka bote txapelketa.
19:00 Mahai-jokoak.
20:00 Areto futbola, finala.
Ekainak 11, igandea:
18:00 Aste kulturalaren amaiera, sari banaketarekin.

Urnietan
■ Denda Berri elkartearen eskutik, ekainaren 16tik 23ra:
Ekainak 16, ostirala:
17:00 Toka eta mahai-jokoen txapelketa.
Ekainak 17, larunbata:
18:00 Iribarren orkestrarekin dantzaldia.

Ikastaroak

Andoain, Urnietan
■ **Txertatu merkatuan** ikastaroa: Prestakuntza margoketa industrial, bizikleta konponketa eta abar. 18-22 urte langabetuentzat. Info: 943 30 42 21.
■ **AEK euskaltegiak** ikasturte berrirako matrikulazio epea zabaldu du. Ekainaren 19a baino lehen aurrematrikula egiten dutenek onurak izango dituzte. Informazioa: 673 200 100.
www.aek.eus

Urnietan
■ Udal kiroldegian eta Saroben, udako ikastaroetan izena emateko epea. Azken egunak: Ekainak 16, ostirala.

Musika

Urnietan
■ **Lurdes Iriondo Udal musika** eskolako ikasleen emanaldiak:
Ekainak 8, osteguna:
17:15 Musika tailerra Leikaion.
18:30 Pianoa, biolina, tronpeteta Saroben.
Ekainak 9, ostirala:
18:30 Trikitixa, panderoa Saroben.
Ekainak 14, asteazkena:
17:30 Organoa elizan.
■ **Ostruka's Band** taldearen kontzertua: Udal Musika Eskolako konboetako bat da. Ken Zazpi, Mikel Laboa edota The Beatles taldeen bertsiok.
20:30 HK10 Hotela.
Ekainak 16, ostirala.

Andoain
■ **Andoingo X. Rock Jaialdia:**
18:00 Belarmiñak.
18:50 Peralta.
19:45 Penny Ikinger.
21:40 Limiñanas.
23:15 Belvis Frond.
01:00 Ebbot Lundberg.
Nafarroa plaza.
Ekainak 17, larunbata.

Deialdiak

Andoain
■ **San Juan sua** egin nahi dutenek baimena eskatu behar du. Inprimakian sua egin nahi duten tokia eta arduradunaren datuak zehaztu behar dituzte.
Epea: Ekainak 18.

Urnietan
■ **Eguzkitan blai!** udaleku irekietan plaza libreak daude. Lekaio, Bertan.
Azken eguna: Ekainak 9.

Solstizioa

Andoain
■ **Ametsondoa** ekimenak Udako solstizioa ospatuko du. 19:15 Goikoplaza.
Ekainak 21, asteazkena.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Argoitzek urteak bete zituen ekainaren 4ean, **Jesus** eta **Pedro** anaia bixkiek berriz, ekainaren 5ean. Zorionak hiruoi hamarkada aldaketan! Muxu potoloak etxeko guztien partetik!

ZORIONAK



ANDOAIN

ZORIONAK



OSO ERRAZA eta doakoa. Zorion agurrak Aiurri astekean: diseinua@aiurri.eus www.aiurri.eus Whatsapp: 619 163 537




ZORIONAK




Ekainaren 5ean **Ametsek** 10 urte bete zituen. Zorionak eta asko maite zaitugu amatxok eta aitaxok.

ZORIONAK



Zorionak pexioxa!! Bi urte handi egin ditu **Irati** Fernandezek. Muxurik goxonak etxeko partez!!

ZORIONAK



Mikele urteak bete zituen ekainaren 2an Zorionak eta muxu erraldoiak etxeko partetik.

ZORIONAK



Ekainaren 8ean **Jarek** urtea bete zuen. Muxu asko familia guztia partetik.

Iturzaeta memoriala, azken txanpa asteburu honetan

Binakako pala txapelketa herrikoien finalak asteburuan jokatu dira Sorabillako pilotalekuan, aurrekoan euriagatik hainbat partida bertan behera geratu eta gero.

Ekainak 8, osteguna:
20:00 Final-laurdena: A Andoni-Arruti / Mateo-Aritz

Ekainak 9, ostirala:
19:30 Final-laurdena: B Borrero-Torregaray / Otaegi I-II

Ekainak 10, larunbata:
C 16:30 Irati-Itsasne / Amagoia-Olatz.
D 17:00 Rakel-Alaine / Ugalde ahizpak.
E 17:30 Loidi I-II / Arberas-Mujika.
F 18:00 A/B
18:30 Pala apustua: Urrutia-Baltasar / Peñalvo-Perez.
19:00 Nesken finala: C-D kanporaketetako irabazleak.
19:30 Mutilen finala: E-F kanporaketetako irabazleak.

San Juan sua udaletxeko balkoitik ikusteko aukera

Andoingo Udalak, alkate eta zinegotziekin batera, San Juan sua eta haren inguruan antolatzen diren ekitaldiak udaletxeko balkoitik ikusteko aukera eskainiko du. Interea duenak andoain.eus webgunean, Atarian eta Bastero kultur gunean izena eman dezake zozketarako, datorren ekainaren 21a baino lehen. Zozketa ekainaren 22an izango da eguerdiko 12:00etan hasita. Zozketa horretan bost izen aterako dituzte, bakoitzak nahi duen laguntzailearekin San Juan suaz gozatu ahal izateko.

eman dezake zozketarako, datorren ekainaren 21a baino lehen. Zozketa ekainaren 22an izango da eguerdiko 12:00etan hasita. Zozketa horretan bost izen aterako dituzte, bakoitzak nahi duen laguntzailearekin San Juan suaz gozatu ahal izateko.